

BORTZIRIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2023-2027)



Bortzirietako
Berdintasun Zerbitzua



elhuyar

Subvenciona / Lagunduta

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Instituto Navarro para la Igualdad



Nafarroako Berdintasunerako Institutua

25 años - 25th Anniversary

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Nola egin da Plan hau?
3. Marko arautzaileak eta programatikoak
4. Plana garatzeko printzipio eta bermeak
5. III. PLANA: Deskribapena, esku-hartze arloak, helburuak eta ekintzak.
6. Kudeaketa sistema



01 SARRERA

Esku artean duzu Bortzirietako III. Berdintasunerako Plana. 2023 eta 2027ra bitarteko indarraldia izanen du.

Badira urteak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen dela Bortzirietatik. 2006an aurkeztu zen ISOS Zerbitzuak Bortzirietako Mankomunitateko I. Ekintza Positiboko Plana. Garai horretan, berdintasun kontuak Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen ziren.

I. Plana amaitu ondoren, egindako lana baloratu eta eskualde mailako diagnostikoa biltzen zuen dokumentua osatu zen Euala aholkularitzarekin. Bertan, II. Plana izanen zena marraztu zen, 28 ekintzaz osatutako plangintza. Bigarren plangintza garatzeko, ordea, ezinbestekotzat jo zen Berdintasun Teknikari baten beharra. Horrela, Bortzirietako Berdintasun zerbitzua sortzeko lehen pausoak eman ziren.

Azken hamarkadako bidea gora-beheratsua izan da, ordea. Berdintasun zerbitzua egonkortzeko oztopo ugari egon dira; langileen joan etorri ugari, eta pandemia tarteko.

2022 urtea, aldiz, urte oparoa izan zen. Berdintasun Teknikariaren lanpostua egonkortu zen, eta eskualdeko diagnostiko berri bat egin zen Berdintasun Politiken abiapuntua berriz hartzeko. Gauzak horrela, III. Berdintasun Plana jasotzen da dokumentu honetan. Helburua eskualdeko bortz udalerrietako berdintasun politikak berrabiarazi, norabide berean bultzatu eta egonkortzea da.

Sei atal dauzka dokumentuak, aurkibidean ikusten den moduan. Balio beza Bortzirietan berdintasunerako politiken aldeko apustua egonkortzeko.



02 NOLA EGIN DA PLAN HAU?

2022ko maiatza-ekainean abiatu eta abenduan akitu zen Bortzirietako emakume eta gizonen errealitateari buruzko diagnostikoa. Analisia egiteko on-line bidezko galdetegia zabaldu zuen Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak, eta ondoren, zenbait eztabaida talde eta elkarrizketa antolatu ziren.

Diagnostikoa Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuaren bidez dago eskuragarri, baita Bortzirietako zenbait udalerrietako web orrietan ere.

Diagnostikoaren emaitza argiena III. Berdintasun Plan baten beharra zegoela izan da.

Horregatik guziagatik III. Plana osatzeko prozesua antolatu da 2023an zehar. Prozesuak 4 saio izan ditu. Lehena, memoria egin eta egindako pausoak ezagutzeko eta 2022ko diagnostikotik aurrera begirako erronkak identifikatzeko saioa izan zen. Bertatik ateratako informazioarekin III. Planaren lehen zirriborroa osatu da.

III. Planaren zirriborroa borts udaletako udal-idazkariekin kontrastatu da, baina borts udaletako berdintasun zinegotziek osatzen duten kudeaketa-mahaiarekin ere. Azkenik, herritarrei eta mugimendu feministari irekitako jardunaldi ireki batetan egin da azken kontrastea.

Egitasmo osoa bideratzeko talde eragile bat sortu dugu berdintasunerako zinegotzi batekin, berdintasun teknikariarekin, mugimendu feministako bi kiderekin eta Elhuyar aholkularitzako kide batekin.

Abiapunturako
Hausnarketa
taldea



03 MARKO ARAUTZAILEA



BEIJINGeko HITZARMENA, 1995.

“Sexuen arteko berdintasuna sortzeko, botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren ekintza, jarduera eta eremu guztietan”



EB Funtzionamendurako Tratatu (Lisboako 2009) 8.artikulua: *“Europar Batasunak, bere ekintza guztietan helburutzat hartuko du emakume eta gizonen arteko bereizkeriak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea.”*



**17/2019 FORU LEGEA, APIRILAREN 4KOA,
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUNARI BURUZKOA**

ONDORIOAK:

- **Administrazioaren ardura** da kontzienteki emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea udal **arlotan guztietatik**.
- Horretarako erabili beharreko **estrategiak** ezartzen ditu marko arautzaileak:
 1. **Genero-ikuspegia txertatzea** **administrazioaren** eginkizun eta jarduera guztietan.
 2. **Emakumeen ahalduntzea** sustatzeko **ekintza positiboak** sustatzea.

03 MARKO PROGRAMATIKOA



Garapen Jasangarria Helburu_2030:

5. Helburu Estrategikoa: *“Genero berdintasuna eta emakume eta neskatilen ahalduntzea”*



Europako emakume eta gizonen berdintasunerako Plana:


Estrategia 2020-2025



Nafarroako emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan estrategikoa (2022-2027)



BERDINTASUN PLANETAN LANDU OHI DIREN GAIAK:




04 PRINTZIOAK eta BERMEAK

Bortzirietako III. Berdintasun Plana garatzeko erabiliko diren printzipio eta bermeak hauek izanen dira:


• PRINTZIOAK:

1. **Paradigma feministik lan egitea.** Hau da, ezagutza, teoria eta ikuspegi feministik garatuko den Plana izatea.
2. **Emakumeen eta neskatilen ahalduntzea** helburu duen Plana izatea. Hau da, emakumeen posizionamendu sozial, indibidual eta kolektiboa hobetzea helburu duena; bereizkerien kontzientzia hartu eta berdintasunaren alde inplikatzeta.
3. **Interseksionalitatearen teoria** kontuan hartuz egitea Plana. Hau da, botere harreman asko gurutzatuak gaudela kontuan izanik, bertzelako zapalkuntzek nola eragiten duten aintzat hartzea.
 - *Adibidez; pobrezia, arrazakeria, pertsona migratuen errealitatea, euskararen errealitate linguistikoa, lehen sektorearen errealitatea, zaintza beharrak dauzkatenen errealitatea, eta abar.*



BERMEAK:

1. **Udal osoaren konpromisoarekin** kudeatzea, arduradun politiko eta teknikoen artean.
2. Herritarren eta mugimendu feministaren **parte hartzearekin** garatuko dena.
3. **Koordinazioa eta elkarlanean** oinarrituko den Plana. *(Ikusi proposatzen diren egiturak)*



05 III. PLANA: Deskribapena

III. Plana diseinatzeko irizpide hauek hartu dira kontuan:

1. Plana lanerako tresna izan behar da, beraz, dokumentu arina, ulergarria, errealista eta egingarria egitea izan da asmoa.
2. Bertzetik, Planaren jarraipena errazteko tresnak ere sinplifikatzeko hautua egin da. Adibidez, ekintzak egin diren edo ez zehazteko excel bat sortu dugu, helburuen betetze maila baloratzeko 17 adierazle ezarri ditugu, urteko lan plangintza adostu eta Berdintasun politiketarako hiru hausnarketa gune tekniko sortuko ditugu eskualdean, eta azkenik, ekintzen ardurak arlo guztietako teknikariengana iristea bilatu da, denon ardura baita Bortzirietako Berdintasun Plana garatzea.
3. Akitzeko, komunikazioari eta herrietako mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko elkarteekin interlokuzio izateari garrantzi berezia eman nahi izan zaio. Planaren bultzada eta jarraipena herritik ere egin dadin gardentasuna eta Berdintasun Batzordea indartuz.

III . PLANA DATUETAN

- **4 esku-hartze arlo**
- **12 helburu**
- **38 ekintza**
- **17 ebaluazio adierazle**

4 esku-hartze arlo:

1 ESKU-HARTZE ARLOA. Genero ikuspegia txeratzea udalaren jardueran	2. ESKU-HARTZE ARLOA. Emakumeen aurkako indarkeria matxista	3. ESKU-HARTZE ARLOA. Gizarte eta ekonomia berdinzaleagoa	4. ESKU-HARTZE ARLOA. Emakumeen ahalduntzea eta jendartearen inplikazioa
4 helburu 15 ekintza	3 helburu 8 ekintza	2 helburu 6 ekintza	3 helburu 9 ekintza

05 III. PLANA:


1. ESKU-HARTZE ARLOA:

Genero-ikuspegia txertatzea bortz udalen jardueran

- Esku-hartze arlo honek garrantzia berezia hartu du Berdintasun Politiketaz azken bi hamarkadetan. Gaur egun ez da nahikoa administrazioak ez diskriminatzea. Gaur egun, derrigorrezkoa da, legez, emakume eta gizonen arteko bereizkerietan erreparatzea udal politikak, jarduerak eta antolamendua birpentsatzeko. Lan egiteko estrategia honi *genero-mainstreamingaren* estrategia edo genero-ikuspegia txertatzea erraten zaio, eta 1995ean zabaldu zen, Beijing-en NBEk egindako “Emakumeari buruzko IV. Konferentzia”n.
- Bortzirietako Berdintasun Politiken ibilbidea ikusita erronka nagusia egonkortasunean dagoela ikus daiteke. III. Plana izan arren, ia zerotik hasteko joera dagoela ematen du. Egindako ibilbideei aitortza eman eta baliabideak egonkortzeak garrantzi handia izango du III. Plan hau garatzeko orduan.
- Horrez gain, bortz udalen arteko elkarlana ezinbestekoa denez, eta egindako bidetik ikasiz, ezinbestekoa izango da koordinazio on bat egotea bortz udalen artean; ikuspegi politikoa, teknikoa eta herritarrena kontuan izanik.
- Azkenik, koordinazioaz gain, komunikazioa, gardentasuna eta kontu ematea etengabe egin beharreko ariketa izango da politika hauek eragina izan dezaten.



BERDINTASUN POLITIKAK EGONKORTZEKO BEHARRA



KOORDINAZIO ETA KOMUNIKAZIO BEHARRA



1. ESKU-HARTZE ARLOA:

Genero-ikuspegia txertatzea udalaren jardueran

1 ESKU-HARTZE ARLOA. Genero-ikuspegia txertatzea udalaren jardueran	1.1. MAINSTREAMING ESTRATEGIA GARATZEKO BALDINTZAK SORTZEA Genero-ikuspegia txertatzeko nazioarteko estandarrek zenbait baldintza ezartzen dituzte. Lehen konpromiso politikoa egotea, bigarrena, berdintasun politiken koordinazio politiko eta tekniko ziurtatzea, hirugarrenik, berdintasunari buruzko formakuntza espezifiko sustatzea, eta azkenik, Berdintasun Politikak gardentasunez kudeatzea.	4 ekintza
	1.2. EMAKUMEAK IKUSTEA eta ENTZUTEA Sexu-bereizkeriak identifikatzeko, lehen gauza emakume eta gizonak ikustea da, datuak desagregatuak jasotzea desberdinkeriak topatu eta neurri zuzentzaileak jartzeko. Bestetik, hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista egiteak emakumeak bere aniztasunean ikusaraztea dakar, rol eta esteretipoerik gabe. Azkenik, berdintasun politikak egiteko emakumeen errealitateak eta iritziak udalean islatu behar dira. Horregatik arreta jarriko dugu emakume zinegotzien errealitatean eta eskualdeko emakumeen iritzietan.	4 ekintza
	1.3. UDALETAKO PERTSONEN KUDEAKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA Udalaren barne kudeaketa genero-ikuspegitik kudeatzeko enplegu publikoaren eskaintzetan, erosketa arduratsuan, generoaren aurretiazko ebaluaketan eta erabaki guneetako ordezkariak emakumeak eta gizonak daudela bermatuz egiten dugu.	4 ekintza
	1.4. POLITIKA BAKOITZAREN JARDUERAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA Udal politika garrantzitsuetan genero-ikuspegia txertatzeko udaleko inbertsio garrantzitsuenetan arreta jartzea garrantzitsua izanen da, eta inbertsio horiek genero-ikuspegiarekin egiten direla bermatzea.	3 ekintza
		15 ekintza

05 III. PLANA:


2. ESKU-HARTZE ARLOA:

Emakumeen kontrako indarkeria matxista

- Sexu bereizkerien aurpegiak ilunena da emakumeen kontrako indarkeria matxista, *“historikoki emakumeek pairatu duten bereizkeriaren ondorioa da, gizonetik botere harremanen ondorioa”*, nazioarteko hitzarmenek aitortzen duten moduan, giza eskubideen urraketa etengabe bat.
- Erraten da feminismoaren IV. Olatua aktibatu duena izan dela emakumeen kontrako indarkeria matxista. Nagore Laffagen eraiketa (2008) eta San Ferminetako talde bortxaketak (2016) erantzun soziala eta feminista aktibatu zuen, mundu mailan *#metto* mugimendua aktibatzen zen bitartean. Ondotik heldu dira mundu mailako 2018 eta 2019ko greba feministak.
- Erreakzio sozialak lege aldaketa ugari ekarri ditu, Nazioarteko Istanbulgo hitzarmenetik hasi, 14/2015eko Emakumeen kontrako Foru Legea eta 1/2004 genero-indarkeriaren biktimetzako babes osorako Lege Organikoko 2017ko aldaketak kasu. Horri esker, emakumeen kontrako indarkeriaren babeserako zerbitzuetan hurrak eta menpeko senideek sarbidea izanen dute eta ez da salaketarik beharko zerbitzuak eta eskubideak eskuratzeko, besteak beste.
- Plan honetan jasotzen diren erronka nagusiak zerbitzu publikoen arteko koordinazioa hobetzean daude, zerbitzuok ezagutaraztean, eta salaketa soziala mugimendu feminista eta udalen artean hobeto antolatzean.



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN SALAKETA NAFARROAN



2. ESKU-HARTZE ARLOA:

Emakumeen kontrako indarkeria matxista

2. ESKU-HARTZE ARLOA. Emakumeen aurkako indarkeria matxista	2.1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA EGITEA	
	Indarkeria matxistaren prebentzioa jendartearen esparru ezberdinetatik eragitea garrantzitsua da, eta ahal den heinean, maila koordinatuan. Helburu bezala jarri dugu Plan honetan mugimendu feministarekin batera, bestetako antolatzaileekin eta ostalaritzarekin prebentzio kanpainak antolatzea.	3 ekintza
	2.2. DAUDEN BALIABIDEAK HOBETU ETA EZAGUTZERA EMATEA	
	Baliabideak egon badauden eta lehen pausoa hauek ezagutaraztea izanen da. Bertzetik, kasuen arreta hobetzeko protokolo interinstituzionala egitea izanen da bigarren erronka nagusia. Azkenik, indarkeria egoeratik atera diren emakumeak osatzeko helburuarekin ahalduntzerako ekimenak egitea izango da hirugarrena.	3 ekintza
	2.3. INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ERANTZUN SOZIAL KOORDINATUA SUSTATZEA	
	Indarkeriaren aurka lan egin nahi dugun herritar, eragile sozial, mugimendu feminista eta udalen arteko koordinazioa hobetzea izanen da Plan honen bertze erronketako bat.	2 ekintza
		8 ekintza

05 III. PLANA:



3. ESKU-HARTZE ARLOA:

Gizarte eta ekonomia berdinzaleagoa

- Ekonomia, gizartearen baliabide produktibo eta erreproduktiboak aztertzen dituen zientzia da, bizitzeko behar material eta inmaterialen kudeaketa ikertzen duena. Zoritxarrez, ekonomiaz solastean enplegua, merkatua eta dirua heldu zaizkigu burura, bizitzeko beharrezkoak diren bertzelako baliabide ez monetarizatuak ahaztuz.
- Bizitza zaintzeko lan gehienak musu truk egiten dira, edo era prekarioan, ikusezinak dira, ez baitira zenbatzen, eta ia osoki emakumeen esku daude.
- Bizitza zaintzeko lanek emakume asko lan merkatutik ateratzen dituzte, enplegurako eta diru sarreretarako aukerak murriztuz, eta horrek ondorioak dakartza. Ez da kasualitatea munduko pobreen bi heren emakumeak izatea, edo Nafarroako emakumeen pentsioen batz bestekoa 2021ean ia %40 baxuagoa izatea gizonena baino.
- Gainera, Gaindegiaeren ikerketaren arabera, sexu bereizkeriak ere badu eragina landa eremuen hustutzearekin. Izan ere, emakume gehiago joaten da hiriguneetara gizonak baino. Arrazoï nagusiak izaten dira landa eremuetan emakumeek enplegu duinetarako aukera gutxiago dituztela, eta genero rol eta estereotipoen presioa handiagoa izaten dela.
- Ondorio horiei erantzuteko asmoz jaso da planean emakumeentzako enplegu duinak sustatzeko CEDERNA-GARALUREkin egin beharreko elkarlana.
- Horrez gain, plan honek jaso behar zuen ezinbesteko erronken artean zaintzaren gaia kokatu da; zaintza lanak aitortzea, duintzea eta banatzea. Horretarako, gaur egun eskualdean dauden zaintzarako zerbitzuen diagnostikoa egin eta gida bat sustatzea da asmoa; zerbitzu publiko, pribatu eta komunitarioak kontuan hartuz.



NAFARROAKO PENTSIEN BATAZ BERTZEKOA (2021)



3. ESKU-HARTZE ARLOA:

Gizarte eta ekonomia berdinzaleagoa

3. ESKU-HARTZE ARLOA. Gizarte eta ekonomia berdinzaleagoa	3.1 ZAINZA LANEN AITORTZEA ETA DUITASUNA BULTZATZEA	
	<p>Denok dugulako zainduak izateko beharra bizitzan zehar, eta zaintza lanak oso maila desorekatu eta injustuan egiten direnez, lan lerro honen bidez eskualdean modu duinean zainduak izateko aukeren diagnostikoa egingen dugu.</p> <p>Aukera berritzaileei begira ere jarriko gara, zaintza sare komunitarioen esperientziak Bortzirietara ekarrita. Baina ezin lan ildo hau landu etxeko-zaintzaile-langileengan arreta jarri gabe. Langile hauen eskubideek ezagutaraztea eta beraien arteko sareak eta harremanak indartzen laguntzea izanen da beste ekintzetako bat.</p>	4 ekintza
	3.2. ENPLEGU ETA GARAPEN POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA	
	<p>Udalen eskumena ez izan arren, CEDERNA-GARALUREn bidez, emakumeen enplegu duina sustatzen saiatuko gara.</p> <p>Bestetik, zerbitzuetarako, aisialdirako eta bizitzako hainbat behar asetzeko eskualdeko mugikortasunerako aukerak zabaltzea ezinbesteko beharra da, batez ere emakume zaugarrienentzat (helduak, menpekoak, behartsuenak, nerabeak...). Lan ildo hau ere jorratuko da planean.</p>	2 ekintza
		6 ekintza

05 III. PLANA:

4. ESKU-HARTZE ARLOA:

Emakumeen ahalduntzea eta jendartearen inplikazioa

- GJH-ODS 2030, Nazio Batuen erakundeak jasotzen du genero-bereizkeriei aurre egiteko emakumeen eta neskatilen ahalduntzea dela estrategia nagusia. Nafarroako 17/2019 Berdintasunerako Foru Legean, 4. artikuluan ere hala ezartzen da, emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa dela berdintasunerako administrazio publikoen estrategietako bat.
- Ahalduntzea bultzatzeko asmoz, Plan honetan Bortzirietako ahalduntze eskola sortzea proposatzen da, emakume zaugarrienentzako eskaintza eginen duena eta eskualdeko bertz herrietan eskainiko dena.
- Horrez gain, berdintasunaren aldeko eragile sozialak bultzatzea aurreikusten du Planak, mugimendu feministarekin elkarlanerako espazioak aurreikusiz.
- Baina berdintasuna ez da soilik emakumeen kontua eta berdintasunaren aldeko inplikazioa jendarte guztiaren bidez bultzatzeko *Hezkuntza mahaiarekin*, aisialdirako udal eskaintzarekin, eskualdeko gizon eta mutikoekin, eta LGTBI+ kolektiboko kideekin berdintasunaren aldeko ekimenak sustatzea proposatzen da planean.



Bereizkeriei aurre egiteko baliabideak eskuratzea da ahalduntzea



INDIBIDUALA

Ahalduntze



KOLEKTIBOA

Ahalduntze



ERALDATZAILEA

Ahalduntze

4. ESKU-HARTZE ARLOA:

Emakumeen ahalduntzea eta jendartearen inplikazioa

4. ESKU-HARTZE ARLOA. Emakumeen ahalduntzea eta jendartearen inplikazioa	4.1. BERDINTASUNAREN ALDE INPLIKATZEKO EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEA	
	Ahalduntze eskola sortzea izanen da Plan honen erronka nagusietako bat. Ahalduntzea sustatuko duen egitarau zabala, herriz herri eskainiko dena, kolektibo ezberdinei zuzendua. Bestalde, eskualdeko emakume erreferenteak berrerratu eta ezagutaraztea izango da beste helburu bat.	4 ekintza
	4.2. SEXUEN ARABERAKO ROL ETA ESTEREOTIPOAK DESERAIKITZEA	
	Jendartea oro har berdintasunaren alde inplikatzeko eremu ezberdinetako partaideekin lan egin nahi da. Hasteko, haur, nerabe eta gazteekin, ikastetxe eta gurasoekin, aita eta gizonekin oro har, baita heteroarauari aurre egiten dioten pertsonekin ere.	4 ekintza
	4.3. BERDINTASUNAREN ALDEKO ELKARTEGINTZA SUSTATZEA	
	Plana garatzeko ezinbestekoa izanen da mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko eragileekin elkarlanean aritzea. Horretarako, eragile hauek sustatu eta indartzea da proposamena, baliabide publikoak erraztuz. Elkarlanean Planaren garapenak eragin gehiago izanen baitu.	1 ekintza
		9 ekintza








2023-2027



BORTZIRIETAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III.PLANA

EKINTZAZ EKINTZA



**Ardatz bakoitzean, lehenasunezko zenbait ekintza izendatu dira ordezkari politiko eta herritar nahiz mugimendu feministari irekitako lan-saioetan. Lehenasunezko ekintzei jarraipen berezia egin beharko zaie. Taulan beltzez markatutako ekintzak dira.*

1. Esku-hartze ildoak: GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA UDALAREN JARDUERAN

HELBURUAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNAK
		2023	2024	2025	2026	2027	
1.1. MAINSTREAMING ESTRATEGIA GARATZEKO BALDINTZAK SORTZEA	1.1.1. Mainstreaming estrategia garatzeko konpromisoen dekalogoak borts udalbatzarretan eta mankomunitateetan onartzea.	X					Udalbatzak
	1.1.2. Koordinatzeko egiturak sendotzea. Berdintasun Politiken kudeaketa mahai politikoa bi hilean behin egin eta koordinazio teknikoak hiru hilean behin.		X	X	X	X	Berdintasun zinegotziak eta arduradun teknikoak
	1.1.3. Borts udaletako ordezkari politiko guzientzako Berdintasun Politiken inguruko oinarritzako trebakuntza bat jasotzea. Trebakuntzak urtero antolatuko dira, urte bakoitzean herri ezberdin batean.	X	X	X	X	X	Ordezkari politikoak
	1.1.4. Mankomunitateko berdintasun politikak ezagutarazteko Plan komunikatiboa egitea herritarrek nahiz udalek zerbitzua ezagutzeko.	X	X	X			Berdintasuna
1.2. EMAKUMEAK IKUSTEA eta ENTZUTEA	1.2.1. Udalaren jardueraren bidez jasotzen diren informazioetan sexu aldagaia sistematikoki jaso eta, ondoren, zerbitzuen memoria guztietan datuak desagregatuak jasotzea.		X	X	X	X	Bortzirietako langile publiko guztiak
	1.2.2. Komunikazio ez sexista egiteko irudi eta hizkuntza ez sexisten inguruko lau mezu bidaltzea urtean zehar udal eta mankomunitateetako langile guztiei.		X	X	X	X	Berdintasuna
	1.2.3. Ordezkari politikoen artean emakumeen presentzia hauspotzeko, eta hauen ahotsak balioan jartzeko lan politikorako baldintzak aztertu: kargu motak, liberazioak, ardurak bizitzarekin bateratzeko aukerak eta abar.	X			X		Udal Gobernuak
	1.2.4. Eskualdeko emakumeekin* koordinatu eta eskualdeko berdintasun politketan parte hartzea bultzatzeko urtean bi Berdintasunerako Kontseilu Sozial antolatzea. Bertara Mugimendu feminista eta eskualdeko emakumeak gonbidatuak izango dira.	X	X	X	X	X	Berdintasuna eta Mugimendu Feminista

1. Esku-hartze ildoak: GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA UDALAREN JARDUERAN

HELBURUAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNAK
		2023	2024	2025	2026	2027	
1.3. UDALEKO PERTSONEN KUDEAKETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	1.3.1. Herri bakoitzeko enplegu publikorako sarbide probatan eta sustapenean sexuen arteko berdintasuna sustatzeko klausulak eta neurriak ezartzea, tartean, berdintasunari buruzko Foru Legea eta indarkeria matxistari aurre hartzeko eskualdeko baliabideei buruzko ezagutza izatea.	X	X	X	X	X	Herrietako idazkariak
	1.3.2. Bortzirietako udaletan eta mankomunitateetan dauden, batzorde, epaimahai, edo kide anitzeko organoetan sexuen ordezkariak orekatua bermatzea, eta hala egiten ez bada, berariaz justifikatzea.		X	X	X	X	Herrietako idazkariak
	1.3.3. Udal eta mankomunitateen langileentzako trebakuntza plan bat onartu eta garatzea. Plan horren helburua izanen da lanpostu bakoitzetik berdintasuna nola sustatu daitekeen ikasteko derrigorrezko 10 orduko ikastaroa egitea Planak irauten duen denboran.		X	X	X	X	Berdintasuna
	1.3.4. Udal eta mankomunitate barruko jazarpen sexistak identifikatzen hasteko galdetegi bat sortu, zabaldu eta aztertzea.			X	X	X	Berdintasuna
1.4. POLITIKA BAKOITZAREN JARDUERAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	1.4.1. Udal eta mankomunitateetatik bultzatutako kontratuetan berdintasuna sustatzeko klausulak ezartzeko eta ebaluatzeko proposamena diseinatu eta garatu.	X	X	X	X	X	Herrietako idazkariak
	1.4.2. Urtero udal bakoitzak onartuko dituen udal-ordenantza eta plan estrategikoen zerrenda egin eta bat aukeratu. Ondoren, genero eraginaren aurretiazko ebaluaketa egin eta berdintasuna sustatzeko neurriak proposatzeko Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetan jarri.			X	X	X	Bortzirietako langile publiko guztiak
	1.4.3. Udal bakoitzak, bere egitasmo garrantzitsu bat aukeratuko du Berdintasun Zerbitzuarekin batera genero ikuspegia txertatzen laguntzeko. Garrantzia maila aukeratzeko, egitasmoaren aurrekontu bolumena eta eraldaketa gaitasuna hartuko dira kontuan.	X	X	X	X	X	Udal Gobernuak

2. Esku-hartze ildoak: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

HELBURUAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNAK
		2023	2024	2025	2026	2027	
2.1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA EGITEA	2.1.1. Azaroaren 25aren inguruan indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio jarduerak egitea eskualdean, mugimendu feministarekin koordinatuta.	X	X	X	X	X	Berdintasuna eta Mugimendu Feminista
	2.1.2. Besten testuinguruan ematen diren erasoak prebenitu edo kudeatzeko herrietako besta batzordeekin indarkeria matxistari buruzko lanketa egitea.	X	X				Berdintasuna eta besta batzordeak
	2.1.3. Gauaren testuinguruan ematen diren erasoei aurre hartu eta erantzuteko ostalaritzarekin batera lanketa egitea.			X	X		Berdintasuna eta udalak
2.2. DAUDEN BALIABIDEAK HOBETU eta EZAGUTZERA EMATEA	2.2.1. Indarkeria matxista kasuen arreta egiteko eta emakumeak babesteko baliabideen gida egin eta ezagutzera ematea herritarrei eta eragileei.		X				Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuak
	2.2.2. Eskualdeko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuak hobe kudeatzeko protokolo interinstituzionala diseinatu eta urteko jarraipen bilerak egin.				X		Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuak
	2.2.3. Indarkeria matxista egoeretatik atera direnentsako ahalduntze eta erreparaziorako ekimenak antolatzea.	X	X	X	X	X	Berdintasuna
2.3. INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ERANTZUN SOZIAL KOORDINATUA SUSTATZEA	2.3.1. Indarkeria matxista kasuen aurrean herritar bezala nola jokatu eta lagundu dezakegun lantzeko prozesuak sustatu herrikan, urtero.	X	X	X	X	X	Berdintasuna eta udalak
	2.3.2. Elkarretaratze eta bertzelako ekintza baketsuetara deitzea eraso larrien aurrean era koordinatuan mugimendu feministarekin.	X	X	X	X	X	Berdintasuna eta udalak

3. Esku-hartze ildoak: GIZARTE ETA EKONOMIA BERDINZALEA

HELBURUAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNAK
		2023	2024	2025	2026	2027	
3.1 ZAINZA LANEN AITORTZA, DUINTASUNA eta BANAKETA BULTZATZEA	3.1.1. Zaintza sare komunitarioen esperientzien inguruko hitzaldi, jardunaldi eta ekimenak antolatzea.			X			Berdintasuna
	3.1.2. Eskualdeko zaintza beharren diagnostikoa egitea, umeen zaintzari eta menpekoen zaintzari lotua.		X				Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuak
	3.1.3 Etxeko-zaintzaile-langileen eta familia kontratatzaileen zalantzak Nafarroako Bitartekaritza zerbitzura deribatzea eta haien arteko sareak antolatzen laguntzea.	X	X	X	X	X	Gizarte Zerbitzuak
	3.1.4. Etxeko langileen zerbitzuak kontratatzen dituztenekin langileekiko tratu onak sustatzeko kontzientziazio kanpaina egitea.				X		Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuak
3.2. ENPLEGU ETA GARAPEN POLITIKETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	3.2.1. CEDERNA-GARALUR-eko teknikariarekin elkarlana indartzea eta genero-ikuspegia programa hauetan txertatzea.		X	X	X	X	Berdintasuna
	3.2.2. Mugikortasuna errazteko formulak ikertzea genero ikuspegiarekin, mugikortasunaren planean.		X	X			Berdintasuna eta udalak

4. Esku-hartze ildoak: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA JENDARTEAREN INPLIKAZIOA

HELBURUAK	EKINTZAK	KRONOGRAMA					ARDURADUNAK
		2023	2024	2025	2026	2027	
4.1. BERDINTASUNAREN ALDE INPLIKATZEKO EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEA	4.1.1. Eskualde mailako ahalduntze-eskola sortu. Eskaintza profil anitzeko emakumeei zuzendua: nerabeak, emakume migratuak, emakume helduak-bakartuak, emakume baserritarrak eta landa eremuak, ama bakarrak eta abar.		X	X	X	X	Berdintasuna
	4.1.2. Ahalduntze eskolaren eskaintza eskualdeko herri guzietan zehar banatu.			X	X	X	Berdintasuna
	4.1.3. Jubilotekarekin elkarlanean ekintzak antolatu emakume helduentzat.		X	X	X	X	Gizarte Zerbitzuak
	4.1.4. Eskualdeko emakume erreferenteak ezagutarazteko ekimenak sustatu alor ezberdinetan: kirolean, kulturari, historian, etab.		X	X	X	X	Euskara eta Kultura
4.2. SEXUEN ARABERAKO ROL ETA ESTEREOTIPOAK DESERAIKITZEA	4.2.1. Haur eta nerabeei zuzendutako udal zerbitzuetan (udalekuak, aisialdia, kultura) sexuen araberako rol eta estereotipoak deseraikitzeke neurriak ezartzea eta hezkidetzaren sustatzea.	X	X	X	X	X	Euskara eta Kultura
	4.2.2. Eskualdeko Hezkuntza mahaiarekin, urtean behin hezkidetzaren gaia landu.		X	X	X	X	Berdintasuna eta Hezkuntza mahaia
	4.2.3. Aitei eta gizonei zuzendutako ekimen bat antolatzea zaintzaren eta erantzukidetasunaren inguruan hausnartzeko.		X		X		Berdintasuna
	4.2.4. Heteroarauari eta sexu-genero sistemari aurre egiten dioten praktikak dituzten pertsonen ikusgarritasuna sustatzea eta erreferenteak eskaintzea.	X	X	X	X	X	Berdintasuna
4.3. BERDINTASUNAREN ALDEKO ELKARTEGINTZA SUSTATZEA	4.3.1. Bortzirietako mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko bestelako ekimenak sustatzeko baliabideak eskaintzea udaletatik.	X	X	X	X	X	Berdintasuna eta Mugimendu Feminista

06 KUDEAKETA SISTEMA

Kudeaketa sistema 5 ataletan banatu dugu.

1. **Koordinazio egiturak**
2. **Urteko programazioak**
3. **Plana garatzeko baliabideak**
4. **Ebaluazio sistema**
5. **Komunikazioa**



1. KOORDINAZIO EGITURAK

Plana aurrera eramateko hiru koordinazio egitura aurreikusi ditugu:

- **Helburua:** Berdintasun Politikak koordinatzea eta Planari jarraipena egitea.
- **Funtzionamendua:** Bi hilean behin biltzea.

Berdintasun
Politiken
kudeaketa
mahaia



- **Helburua:** Berdintasun Planaren jarraipena egitea, batetik, udal idazkariekin, bestetik, gizarte langileekin, eta azkenik, mankomunatatutako politiken teknikariekkin.
- **Funtzionamendua:** Aipatutako partaideekin urtean bilera bat guttienez.

Berdintasunerako
lantalde teknikoak



- **Helburua:** Berdintasunaren aldeko elkarte, eragile feminista, eskualdeko emakumeak eta eskualdeko berdintasun teknikariak Berdintasunari lotutako jarduna partekatze espazioa izatea.
- **Funtzionamendua:** Guttinez urtean bi aldiz batzea.

Eskualdeko emakume
eta mugimendu
feministarekin



2. URTEKO PROGRAMAZIOA



Bortzirietako emakume eta gizonen berdintasunerako III. Planak 2023-2027 bitarteko iraupena izanen du. Hala ere, lanak eta ekintzak zehazte aldera, urteroko lan-programa egin beharko da, zenbait ekintzek urteroko lana eskatuko dutelako.

Plan osoak eta urterokoak Nafarroako Berdintasun Plan estrategikoarekin bat eginen du. Planean eta urteko ekintza programetan jasoko diren ekintzen ardurak banatuta egonen dira, mankomunitateko teknikariek, udal idazkarien, bestelako langile publiko eta berdintasun teknikariaren artean.

3. PLANA GARATZEKO BALIABIDEAK




Planaren ardura udal osoarena izan arren, Planaren sustapena, jarraipena eta ebaluazioa bere gain hartuko duen pertsonal kualifikatua beharko dute Bortzirietako udalek, hau da, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ezagutza espezifiko duen teknikaria.



Horrez gain, planeko ekintzak garatzeko aurrekontu ekonomikoa beharko da. Horretarako, urteroko programazioan aurreikusi beharko da ekintzearako behar dena, aurrekontuetan isla izan dezan.

4. EBALUAZIO SISTEMA



HELBURUEN BETETZE MAILA NEURTZEKO ADIERAZLEAK

ESKU-HARTZE ARLOAK	HELBURUAK	INPAKTU ADIERAZLEAK
1. Genero ikuspegia txeratzea udalaren jardueran	1.1. MAINSTREAMING ESTRATEGIA GARATZEKO BALDINTZAK SORTZEA	Koordinazio politiko eta teknikorako urteko bileren kopurua eta asistentzia mota
	1.2. EMAKUMEAK IKUSTEA eta ENTZUTEA	Urtean datuak desagregatuak dauzkaten memorien ehunekoa Mugimendu feministarekin eta emakume erreferenteekin urtean egindako koordinazio bilera kopurua eta asistentzia
	1.3. UDALEKO PERTSONEN KUDEAKETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	Egin diren enplegu publiko deialdien artean berdintasunari buruzko neurriak sartu diren deialdien ehunekoa Urtean zenbat langilek hartu duten parte trebakuntzetan (sexuaren arabera desagregatuta)
	1.4. POLITIKA BAKOITZAREN JARDUERAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	Bortzirietako kontratazio publikoan txertatu diren berdintasunerako klausulen ebaluazio kualitatiboa egitea Udal gobernuekin genero ikuspegiarekin landu diren udal proiektuen kopurua
2. Emaztekiek aurkako indarkeria matxista	2.1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA EGITEA	Urtero prebentziorako protokoloetan hartu duten eragile kopurua, banatuta, eragile sozialak, batetik, besta batzordeak bestetik eta ostalariak azkenik
	2.2. DAUDEN BALIABIDEAK HOBETU eta EZAGUTZERA EMATEA	Protokolo interinstituzionalaren inguruan egin diren bilera kopurua eta parte hartu duten instituzioen kopurua Ahalduntze eta erreparazioan parte hartzen duten emakume kopurua
	2.3. INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ERANTZUN SOZIAL KOORDINATUA SUSTATZEA	Indarkeria matxista kasuen aurrean zer egin eta nola jokatu lantzeko prozesuan parte hartu duten herritarren kopurua

06 KUDEAKETA SISTEMA

HELBURUEN BETETZE MAILA NEURTZEKO ADIERAZLEAK

ESKU-HARTZE ARLOAK	HELBURUAK	INPAKTU ADIERAZLEAK
3. Gizarte eta ekonomia berdinzaleagoa	3.1 ZAINZA LANEN AITORTZA, DUINTASUNA eta BERBANAKETA BULTZATZEA	Zaintzaren beharrak asetzeko egindako hitzaldi, bilera, tailer kopurua eta parte hartu duten partaideen kopurura sexuaren arabera
	3.2. ENPLEGU ETA GARAPEN POLITIKETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	Eskualdeko etxeko langileekin egindako harreman kopurua Mugikortasuna errazteko ekintza edo programaren bat sustatu izana
4. Emakumeen ahalduntzea eta jendartearen inplikazioa	4.1. BERDINTASUNAREN ALDE INPLIKATZEKO EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEA	Antolatutako ikastaroetan parte hartu duten emakumeen kopurua, adina, herria eta jatorria kontuan izanda
	4.2. SEXUEN ARABERAKO ROL ETA ESTEREOTIPOAK DESERAIKITZEA	Mutiko, gizon eta LGTBI+ kolektiboek zuzendutako ekintza kopurua eta partaide kopurua
	4.3. BERDINTASUNAREN ALDEKO ELKARTEGINTZA SUSTATZEA	Eskualdeko mugimendu feminista edo berdintasunaren aldeko ekimenetan gastatu zen aurrekontu kopurua

5. KOMUNIKAZIOA



ESKUALDEKO UDALETAN: Bortz udaletako langile guziei ezagutzera eman Plana. Langile berriei egiten zaien harrera-planaren barruan Berdintasun Plana ezagutzera eman. Intranetean Plana paratu.

HERRITARREI: Plana ezagutarazteko prentsaurrekoa, web orrira Plana igo, esku-orri laburtua zabaldu fisikoki.

URTEROKO PLANAREN JARRAIPENAK EZAGUTZERA EMAN: Prentsa oharra urtero, Berdintasun batzordean.

SARE SOZIALETAN Planaren onarpena eta garapena ezagutzera eman.

elhuyar 
ezagutuz aldatzea

www.elhuyar.eus